

*Benetan be teatroak aurkezten du !!*

# patetik bestera

*txoriburu  
izango gara*

*Kontzertua*



*Benetan be teatroa onak dira!!*

# batetik bestera



BENETAN BE  TEATROA

## Aurkibidea

01. ZER.....	03
02. NORI.....	04
03. NOLA.....	05
04. NONDIK NORA: ANTZERKITIK MUSIKARA.....	06
05. NORTZUK.....	07
06. BENETAN BE.....	09
07. HARREMANTERAKO.....	10

Bonetan be teatroa onaketa da!!

# batetik bestera



## 01. Zer

“Batetik Bestera: Kontzertua” hurrei eta familiei zuzendutako proposamen eszeniko-musikala izango da. Musika, umorea, antzerkia eta poesia uztartzen dituen sorkuntza originala. Txorien migrazioen bidez giza migrazioei buruz hausnartuko dugu. Abestiek gure ingurumenaren ezagutza, babesa eta maitasuna sustatzen dituzte eta elkartasuna, elkarbizitza, kulturartekotasuna balorean jartzen dituzte.

“Eki arrano arrantzalea (eta arrain arranozalea)”, “Ubarroiarena”, “Argi, mozoloa”, “Partekatu”... Guretik igarotzen diren txoriei eta euren ohiturei buruz arituko gara.

Elkarrekin abestu dezagun!

50 minutu inguruan txoriburu izango gara hausnarketarako  
abiapuntu izateko grinaz.



Bonetan be bestera, onbestera da!!

# batetik bestera



## 02. Nori

- Hurrei eta familiei zuzenduta (0-100): Gure laugarren egitasmo honetan, aurreko hiruretan legez, gure txikiak eta gazteak hazten laguntzeko helduon ezintasun, kontraesan eta ergelkeriak partekatuko ditugu, oraingoan, kanten bidez.
- Helduei eta hurrei: Haurrak izan ditugu gogoan kantak garatzerakoan, baina helduak ere bai. Guk gustura egiten dugun musika egin dugu, guk entzun nahi duguna. Guk gure hurrekin batera entzun nahi duguna.
- Gertuko Formatua: Euskal Herriko bazter guztietara heldu ahal izateko erronkarekin abiatu dugu "Batetik Bestera, kontzertua". Formatua aproposa da antzoki handietan zein areto txikiagoetan egiteko. Hala nola, areto barruan zein kalean gauzatzeko egokia da.

04



Bonetan be teatrori onakortu da!!

# batetik bestera



## 03. Nola

Publikoaren parte hartzea: Bidaia bat proposatzen dugu, txorien migrazioekin batera. Txoriei eta euren ohiturei buruz arituko gara bai kantuetan bai kantuen artean. Elkarrekin abestu dezagun!

Taularatzea: Argiztapen diseinu ederra garatu dugu, naturaren elementuetan oinarritua. Giro eta testura ezberdinak sortuko ditu abestiei eta publikoarekin partekatuko ditugun une ezberdinei egokituko direnak.

Transmisioa kantuan: Ikerketa prozesu sakona burutu dugu eta horretarako eremu ezberdinetan aritzen diren txori-maitaleekin elkartu gara (Urdaibai Bird Center, BC3ko ikertzaile eta langileekin besteak beste). Kantuotan eurek gurekin partekatutako informazioaz gain, eza gutza horrekin batera helarazi diguten maitasuna eta kemena islatzen dira.



Benetan be teatroari antzerkiak da!!

# batetik bestera



## 04 .NONDIK NORA: ANTZERKITIK MUSIKARA

Benetan Be Teatroaren sorkuntza lanetan musika- eta antzerki-sorkuntza elkarren eskutik joan dira beti. 2022ko urrian, "Batetik Bestera" antzezlana estreinatu genuen, eta haren sorkuntza prozesuan zehar, abesti eta kanta sorta bat osatu genuen. Kanta sorta horrek gure itsaslabar, hezegune eta paduren biodibertsitatea ditu hizpide, hala nola partekatzea, bidaiatzea, jakin-mina, kultura ezberdinen ezagutza eta bestelako erronka txiki eta handiak.

2023ko udan Patricia Urrutiak, Andrés Letamendiak eta Josu Aginagak kanta sorta hori ondu eta abesti berriekin osatu dugu eta "Batetik Bestera" disko ederra sortu dugu. Beti kanta horiek zuzenean jotzeko eta gozatzeko asmo irmoarekin.

Antzerkiaren oihartzunak iraun dezala kantuan!



Bonetan be bestera onaketa da!!

# batetik bestera



## 05 .NORTZUK

JOSU AGINAGA

Gitarra ikasketak burutzen ditu Bilboko Goi Mailako Kontserbatorioan eta Historia ikasketak Deustuko Unibertsitatean. Doctor Deseo, Era Batera edo Duobite rock taldeen kide da eta Bilbao Musikako irakasle. Beste talde batzuekin ere jo izan du, hala nola, Smile. Eurekin batera hainbat bira egin ditu nazioarteko jaialdi eta areto garrantzitsuenetan. jo izan du. Iragarki, dokumental eta filme ezberdinetarako musika konposatu eta grabatu du.

ANDRÉS LETAMENDIA

Bateria joleak Enpresa ikasketak burutzen ditu EHU-n. Lord Sickness-eko kide izan zen (Villa de Bilbao pop-rock lehiaketaren irabazle) eta hainbat talderekin ere jo izan du, hala nola Cancer Moon eta Los Clavos. Horretaz gain, Gorkizeko Xurrut Jazz Jaialdiko programatzailea ere izan da azken hogeita bost urteotan. Gaur egun, Duobite proiektuarekin dabil buru belarri.

07



Benetan be teatrori onaketa da!!

# batetik bestera



PATRICIA URRUTIA

Philippe Gaulierrekin (London) eta Mar Navarrokekin (Madril) antzezle ikasketak burutzen ditu. Horrez gain, musika eta biolin- ikasketak ditu. Baita EHUKo Filologia Klasikoko lizentziatura ere. Antzerkirako, telebistarako zein zinemarako hainbat ekoizpenetan hartu du parte.

Hizkuntzak, antzerkia eta musika zoratzen maite ditu. Antzerkia antzeztu, idatzi (Porno vs Afrodita (edo I & #gorkaurbizu), Susa, 2021), zuzendu eta ekoiztu ere egiten du. Nekeak neke, ardurak ardura, munduko beharrik onena daukalako konbentzimendua dauka.



[www.benetanbe.com](http://www.benetanbe.com)



@benetanbe





# Batetik Bestera

Benetan be teatriari buruzko da!!




## 06. Benetan Be

Benetan Be, ZUBI deialdiaren eta Eusko Jaurlaritzaren Hitzartutako Zirkuituko Produzioak dirulaguntzaren bultzadarekin Inondik Inora proiektu kuttuna aurrera ateratzeko sortu zen ekimena da. Euskaraz antzerkiaren bitartez bizitzan sortzen diren galdera, zirrara, eta beharren aurrean hausnarketarako sormen gunea izateko indarragaz jaio zitzaigun. Gure bigarren ikuskizuna, Porno vs Afrodita (edo I ♡ #gorkaurbizu), ikusle heldu eta oraindik heldu ez direnei zuzendua, pandemiaren erdian, Euskal Herriko bazterrak astindu genituen gure ergelkeria sexual eta afektiboez ikusleekin barrez lehertzen. Horren ostean, gure hirugarren ikuskizuna plazaratu genuen,

Bestera. Antzerkia, musika eta umorea uztartuz, gizakion migrazioen gainean hausnarketa bultzatzeko erronkarekin, txorien migrazioen bitartez. Hiru ikuskizunek EJ-ren HZ-ko Produzioak deialdiaren bultzada jaso dute.

2023ko udan, Patricia Urrutiak, Andrés Letamendiak eta Josu Aginagak kanta sorta hori ondu eta abesti berriekin osatu dugu eta "Batetik Bestera" disko ederra sortu dugu. Beti kanta horiek zuzenean jotzeko eta gozatzeko asmo irmoarekin.





## 07.Harremanetarako

Benetan Be  
benetanbe@gmail.com

Patricia Urrutia  
00 34 696 256 925

Esther Terradas  
00 34 695 754 891



*Benetan be teatroak aurkeztu du !!*

# batetik bestera

*txoriburu  
izango gara*

Entzun!

<https://labur.eus/entzunbb>

<https://labur.eus/entzunbby>

Begira!

<https://labur.eus/begirabb>

